



ERNAI

Ernairen
IV. Kongresua.

**Ondorio
nagusiak.**

ERNAI GAZTE ANTOLAKUNDEA 2026ko maiatza.

ERNAIREN

IV.

KONGRESUA

ERNAI





Ernairen
IV. Kongresua.

Ondorio nagusiak.

Aurkibidea:

1.	Zer egin dugu?	5.
2.	Testuingurua.	7-11
3.	Zer da Ernai?	13-14
4.	Nolakoa da Ernai?	16-17
5.	Zein da gure ortzimuga?	19-20
6.	Nola borrokatuko dugu?	22-23
7.	Zeren bitartez borrokatuko dugu?	25-28

Ernairen
IV. Kongresua.

ERRENKUNAK

1. Zer egin dugu?

2025 eta 2026 bitartean Ernairen IV. kongresu prozesua gauzatu dugu. Kongresuak antolakundeok gure ekinbidea baloratu eta datozen urteetan jarraitu beharreko bidea zein den ebazteko garatzen ditugun hausnarketa prozesuak dira. Horrela, prozesu hau antolakundearen azken urteetako bilakaerari erreparatu eta askapen borrokak behar duen gazte antolakundearen forma ebazteko ariketa izan da.

Hain zuzen, horixe izan zen kongresu honen hasieran gure baitan egiten genuen galdera; **Askapen prozesuaren une honetako egoerari begiratuta zein izan behar da gazte antolakundearen funtzioa eta forma?**

Bada, hilabeteetan zehar ehundaka kideren hausnarketak eta ekarpenak bildu ostean ehundu dugu galdera horri erantzun asmo dion hipotesia. Jarraian, hurrengo lerroetan hipotesi horren azalpena jasotzen da.

Liburuxka honekin beraz, emandako hausnarketan ondorioak partekatu nahi izan ditugu. Era berean, honen bitartez, borrokarako eta hausnarketarako gonbitea luzatu nahi dugu, espero baitugu liburuxka hau askapen prozesuak bizi duen egoeraz zein momentu historikoaz hausnartzeko emankorra izatea. Horrez gain, borrokarako grina pizteko akuilu izatea espero dugu, asko dugu borrokatu eta irabazteko. Aukera dugu gure herriaren askapen nazional eta sozialean urrats berriak emateko zein mundua aurkitzen den bidegurutze honetan alternatiba askatzaile berri bat sortzeko.

Beraz, garaiak borroka eskatzen duen neurrian gazte independentistok borrokatuko dugu. Irakurraldi on!

Ernairen
IV. Kongresua.

ESTRATEGIA.

2. Testuingurua

Gisa honetako edozein prozesuren lehenengo urratsa testuinguruaren irakurketa osatzea izan ohi da. Guk ere bertatik abiatu dugu gure hausnarketa. Jarraian beraz, testuinguruari dagokionez osatutako azterketaren ideia nagusiak jasotzen dira.

Bizi dugun garaiaren azterketa bat eginez gero, ezbairik gabe, bai **maila globalean zein herri gisa bidegurutze historiko batean aurkitzen garela** baieztatu dezakegu. Kapitalismoaren fase neoliberalaren amaiera bizi dugu, bigarren mundu gerraz geroztik eraikitako ordena globala abiadura bizian eraisten ari da eta kapitalismoaren bertsio are basati eta autoritarioago bat gorpuzten ari da. Horren baitan, Euskal Herriak ez ditu nahikoa tresna egoera horri aurre egiteko, ez eta, herri gisa ditugun erronka propioei heltzeko. Gainera, Frantziar eta Espainiar Estatuak egoera nahasi hori, gure herriaren asimilizazio prozesua bizkortzeko eta Euskal Herriaren proiektua diluitzeko baliatzen ari dira.

Haatik, **Euskal Herrian hamarkadetako borrokaren ondorioz hainbat baldintza sortu dira, maila politiko zein sozialean herri honen noranzkoa posizio askatzaileetara bideratzea ahalbidetzen digutenak**. Alegia, egoera nahasi batean aurkitzen garen arren, nahikoa baldintza ditugu borrokatuz gero askapen prozesuan aurrera egin eta kapitalismo zisheteropatrialkalari gainjarriko zaion alternatiba askatzaile oso bat gorpuzteko.

Hori horrela, hurrengo lerroetan inguratzen gaituenaren diagnostikoa jasotzen dugu.

2.1 Mundua

Aipatu bezala, mundua sakoneko krisi batean murgilduta dago. Izan ere, azkenengo hamarkadetan eraikitako ordena globala, abiadura bizian desegiten ari da. **Kapitalismoaren metaketa fase baten amaiera bizi dugu**, Ameriketako Estatu Batuen hegemonian eta kapitalismoaren hedadura globalean oinarrituta egon den fase neoliberalala, hain zuzen. Hori horrela, kapitala bere burua egokitzen ari da, eta haren etekin metaketari eusteko kapitalismoaren bertsio basatiago bat martxan jarri du.

Ezgonkortasuna orokortua den testuinguru honetan, indar politiko erreakzionarioak indartzen ari dira. Bai maila elektoralean zein sozialean, ideia faxista zein oro har erreakzionarioak pisua hartzen ari dira. Alegia, **oldarraldi erreakzionarioaren** indartze bat bizi dugu.

Bestetik, aipatutako joerarekin hertsiki lotutako aferak bat **ordena geopolitikoaren aldaketa da**. Hain zuzen, Mendebaldeko estatuak hegemonia galtzen ari diren bitartean, beste herrialde batzuk nabarmen indartzen ari dira. Horrela, ordena geopolitikoak aldatzen ari da. AEBen hegemoniatik, bestelako agente batzuek zentralitate handiagoa izango duten testuinguru baternatz mugitzen gabiltza. Bada, trantsizio hori ez da modu baketsuan garatuko, eta Mendebaldeko estatuak ahaleginak eta bi egingo dituzte euren nagusitasunari eusteko. Hain zuzen, azken urteetan bizi dugun eskala belikoa horren ondorio argia da .

2.2 Estatuak.

Espainiar Estatuari begiratuta, 78ko erregimena deritzoguna ataka larrian dago. Frankismoaren ostean, erregimenaren zutabe nagusiak egokitu gabe, Espainiar Estatua Europako gainontzeko demokrazia liberalen parametroetara egokitzeko operazio bat izan zen "trantsizioa" deiturikoa. Eta hain zuzen, trantsizioak ezarri zituen 78ko erregimen gisa izendatzen dugunaren oinarri nagusiak. Horrela, hamarkada guzti hauetan zehar, 78ko erregimena Espainiar Estatuko familia politiko nagusien arteko hitzarmen bat izan da, merkatu ekonomiaren babesean eta Espainiaren batasun nazionalaren defentsan oinarrituta egon dena.

Haatik, azken hamarkadan aldaketa esanguratsuak gertatu dira eta horiek guztiek 78ko erregimenaren sakoneko krisi bat eragin dute. Horren eragile izan dira besteak beste 2008ko krisi finantziarioa, zein horren

erantzun gisa artikulatutako "15-M" mugimendua, baita horren ondorioa izandako "Podemos" fenomenoaren ere. Garai berdintsuetan gainera, Espainiar Estatuaren izaera autoritarioa agerian utzi zuen Kataluniako *proceso*-a gertatu zen, Espainiar Estatuaren proiektua errotik astindu zuena. Bestalde, azken 7 urteetan koalizio gobernuen —hasieran PSOE-Podemos eta ondotik PSOE-Sumar forma hartuz— elementuak modu nabarmenean baldintzatu ditu 78ko erregimenean aurre ezarriak zeuden printzipioak, bereziki, indar independentistek koalizio gobernu horren baitezpadako sostengua bihurtu direlako, hauen indar harremana nabarmen hobetuz. Hain zuzen, koiuntura horrek PSOE eta 78 erregimeneko hitzarmenaren arteko sasi apurketa bat eragin du. Nahiz eta PSOE trantsizioan eraikitako marko politikoaren babesle esplizitua izan, inplizituki PSOEren posizio klasikoetatik urruntzen ari da. Horrela, Espainiar Estatuko sakoneko krisia idartzen ari da.

Frantziar Estatuaren krisialdia ere sakonekoa da. Azken urteetan aplikatu diren politikek jendartearen prekaritatea eta eskubide urraketak besterik ez dituzte ekarri, eta horrek ezinegon ikaragarria sortu du gizartean. Gainera, eskuin muturraren hazkundera nabaria izan da, eta hauteskundeak irabazteko aukera erreala dituzte. Eta, horren aurrean, ezkerrean ez dago alternatiba sendorik. Horrek, ezinegona nabarmen handitu du.

2.3 Euskal Herria.

Aipatu bezala, Euskal Herriak burujabetza ukatua du, eta hortaz, ez ditugu nahikoa tresna munduan gertatzen ari diren sakoneko krisiei aurre egiteko, ez eta gure erronka propioei erantzuteko. Hala ere, hamarkadetako borroka desberdinen ondorio diren hainbat baldintza sortu ditugu. Baldintza hauen bidez, askapen prozesuan aurrera egiteko aukera izan dugu urtez urte.

Gainera, une honetan askapen prozesuaren une garrantzitsu batean gaude. Hain zuzen, baldintza horiek zukutu eta aukera berriak hauspotzearen ondorioz, gaur da eguna zeinetan hainbat modutan herri honen askatasunaren aldeko borrokan urrats berriak egiteko atarian gauden. Alegia, **askapen borrokaren ikuspegitik ziklo politiko berri bat zabaltzear egon gaitzake**. Nagusiki, hiru auziri erreparatuta baieztatu dezakegu ziklo politiko berri baten atarian gaudela.

Alde batetik, **preso, iheslari eta deportatu politikoen auziari behin betiko konponbidea emateko** aukera dugu. Urte gutxiren buruan, hamarkadetako blokeoa gainditu eta preso politikorik gabeko agertoki batean topatu

gaitezke. Horrek, mesede izugarria egingo lioke herri honi. Orain arte ekuazio politikoan eragiten zuen elementu ankerrenetako bat jokoz kanpo geratuko litzateke eta benetako bakea eta konponbiderantz urratsak emateko baldintza egokiagoak izango genituzke.

Bestetik, azken urte gutxitan izugarria izan da **ezker independentismoak izan duen hazkundera**. Izan ere, herri sektoreen atsekabearen eta indar politiko klasikoen jauntxokerien aurrean, ezkerreko independentismoa alternatiba bat eskaintzeko gai da. Besteak beste, EH Bilduren proiektuak gorpuzten du alternatiba hori eta esan dezakegu, bihar edo etzi EH Bilduk herri honetako instituzio nagusiak gobernatu ditzakeela. Gainera, herri honetan sekoneko aldaketa soziologikoak jazo dira. Orain arte, independentismotik urrunen egon zitezkeen sektore zein lurraldeak ezkerreko independentismora nabarmen gerturatu dira.

Azkenik, **Euskal lurralde guztietan forma eta denbora desberdinetan, nazio aitortzan, erabakitze eskubidean eta lurralde artikulaziora bidean jauzi berri bat egiteko aukera dago**. Izan ere, gaur da eguna non Nafarroa Garaian, Ipar Euskal Herrian eta baita Euskal Autonomia Erkidegoan ere aukerak dauden aipatutako hiru ardatzen baitan jauzi berri bat egiteko. Horrela, urte gutxi batzuen buruan Euskal Herriaren nazio aitortzan eta euskaldunon erabakitze eskubidearen ikuspegitik urrats esanguruatsuak egin ditugun eszenatoki batean aurkitu gaitezke. Honek, herri honi sekulako astindua emango lioke eta gure helburu historikoak erdiestetik gertuago kokatuko gintuzke.

Beraz, inongo zalantzarik gabe, askapen borrokaren perspektiban ziklo politiko berri bat zabaltzeko tenorean gaudela baieztatu dezakegu. Horrek, nazio askapen mugimendu osoa eta baita gazte antolakundera ere zuzenean interpelatzen du

2.4 Gazteria.

Marraztutako egoera orokorrak gazteoi zuzen-zuzenean eragiten digu. Horrela, sakoneko prekarizazio prozesu bat bizi dugu. Gazteok, sistema kapitalistaren baitan funtzio estruktural bat betetzen dugu. Hain zuzen, eskulan merkeena gara eta horrela kapitalak are etekin handiagoak eskuratzen ditu. Hori horrela, gazteon eta prekariatatearen arteko lotura banaezina izan da eta egoera prekario horrek ezaugarritu gaitu subjektu gisa. Ala, kapitalismoaren sakoneko krisialdi une batean —zeinetan

kapitalismoaren bertsio are basatiago bat gorpuzten ari den— gazteok prekarietatea are modu gordinagoan biziko dugu.

Hortaz, ezbairik gabe, gazteon bizitzen kaskartze orokortu bat gertatzen ari den testuinguru batean gaude, eta horrek, espektatiba kolektiboen galera izugarri bat suposatu du. Alegia, egun, etorkizun desiragarri bat irudikatzeko geroz eta ezintasun handiagoak ditugu. Horrek, askotariko proiektu eta harremanekiko desatxikimendua eta deslotura indartzen du, eta zuzeneko lotura du gazteok gaixotasun psikosozialak garatzearekin. Hori da gure belaunaldiaren gaitzik handienetariko bat.

Hala ere, Euskal Herriko gazteriarri dagokionez, oraindik ere parte-hartze eta jakin-min politiko handia dago. Azken datuek baieztatzen duten bezala, parte-hartze politikorako grina azken 30 urteetako handiena da gaur egun, eta besteak beste, gazteak gara proportzionalki gehien bozkatzten dugun adin tartea. Alabaina, azken hamarkadeetan nabarmen aldatu dira parte-hartze politiko hori materializatzeko moduak. Egun ere, militantzia "klasikoa" hedatzen eta are indartzen ari den eredu den arren, geroz eta gehiago dira bereziki sare sozialeen bitartez politikoki eragin eta lerratzea hobesten duten gazteak.

Ernairen
IV. Kongresua.

ERNAIRN
ERNAIRN
ERNAIRN
ERNAIRN

3. Zer da Ernai?

Ernai ezker abertzaleko gazte antolakunde autonomo eta iraultzailea da, eta Euskal Herria, aske, sozialista, feminista eta euskalduna du helburu.

Ernai ezker abertzaleko gazte antolakundea autonomia da. 45 urteetan zehar egin bezala, kongresu honetan gazteok Euskal Herrian bizi ditugun askotariko arazoei aterabidea emateko biderik egokiena askapen mugimenduan antolatu eta borrokatzea dela berretsi dugu.

Izan ere, askapen prozesuak gazteon bultzada eta borrokarako grina behar beharrezkoa du, prozesua bultzatu eta aurrera egin dezan. Era berean, gazteok bizi ditugun askotariko arazoei aurre egiteko askapen prozesua ezinbestekoa dugu, askapen prozesuak borrokarako eskaintza integral bat ematen digulako, baita gure problematiken gaindipenerako giltza askapen prozesuaren gauzapenean kokatzen dugulako. Alegia, Euskal Herria aske, sozialista, feminista eta euskalduna erdiestean.

Bada, horixe litzateke beraz gure helburu behinena, ahalik eta gazte gehien askapen mugimendura batzea. Eta, askapen prozesua gehiengo independentista hedatzean oinarritzen denez, gazte independentistak sortzea txanpon beraren beste aldea dela ulertzen dugu. Beraz, **gazteria askapen mugimendura batzea eta gazte independentistak sortzea** da Ernairen misioa nagusia. Hau da, Ernairen izateko arrazoia.

Beraz, esan bezala, Ernaiko kideok askapen mugimendura lotutako kideak gara. Hortaz, Ernaiko militante guztiok Sortuko kideak gara, hain zuzen Sortu delako nazio askapen mugimendua osatzen dugun kide guztion bilgune politikoa. Era berean, LAB da gure erreferentziazko sindikatua.

Bestetik, Ernai ezker abertzaleko gazte antolakundea izanik, gure egiten dugu fase politiko honetan ezkerreko independentismoa hauspotu eta indartzearen erronka. Hain zuzen, ezkerreko independentismoa deritzogun esparru politikoa da estatuekiko haustura gauzatu bitarteko fase politiko honetan, indar metaketarako espazio nagusia, hau da, hegemonia lehiatzeko eta Euskal Errepublikaren proiektuaren alde artikulatuko den gehiengoa eraikitzeko lanabesa. Hori horrela, EH Bildu eta EH Bai izanik ezkerreko independentismoaren erreferentzia politiko nagusiak, gure egiten dugu aurrerantzean ere EH Bildu indartzearen erronka.

**NO
LA
MO
A**

**NO
LA
MO
A
S**

4. Nolakoa da Ernai?

Ernai gazte antolakundea bat da, baina Ernai ez da ohiko antolakunde baten forman ezaugarritzen.

Alde batetik, Ernaira binkulatzeko eta gazte independentista gisa herri honen askatasunaren aldeko borrokara batzeko askotariko moduak daude. Horregatik, **Ernaik espazio zurrun bat baino, zabala izan behar du**. Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokari ekarpena egin nahi dion gazte orok izan behar du lekua Ernairen baitan, eta horretarako ekarpen hori modu ugaritan lurreratzeko moduak eskainiko ditugu.

Bestetik, Ernai antolakunde **zentratu** gisa ezaugarritzen dugu, eta hori, helburu dugun zabaltasun horrekin hertsiki lotuta ulertzen dugu. Zentratuaz ari garenean, Ernaik borrokatzen duen hori zein antolakundeak dituen helburuak ondo definituta izateaz, eta hori modu argian transmititzeaz ari gara. Hori da hain zuzen, antolakunde zabal bat izateko ezinbesteko egitekoetako bat. Helburutzat ahalik eta gazte gehienek Ernairekin bat egitea izanik, Ernaik gazte horiekin konektatzea ezinbestekoa da.

Ernaira binkulatzeko modu askotarikoak dauden arren, kongresu honetan militante figurarekiko berrespen bat egin dugu, eta honi dagokion aitortza egin nahi izan diogu. Izan ere, bizi ditugun garaiotan lotura eza eta indibidualismoa geroz eta hedatuago daude, eta proiektu kolektibo batera lotu eta hau bakoitzaren bizitzaren parte bilakatzeak sekulako garrantzia eta potentzial eraldatzailea duela deritzogu. Hortaz, Ernai zer den ulertzeko, **Ernai militante politikoz osaturiko antolakundea** dela aipatzea ezinbesteko elementuetako bat da.

Horretarako, besteak beste, Ernai **etxe eta eskola** gisa ere ulertu behar dugu. Azken hamarkadan zehar Ernaik milaka gazteri herri honen aldeko borrokarekin konprometitzeko aukera eman digu, bai eta ikasteko eta ahdalduzko hainbat tresna eskaini ere. Horrela, aurrerantzean ere, hori indartu eta ahalik eta gazte gehien Ernairen baitan borrokatzeko eta ikasteko leku bat topatzearen alde egingo dugu lan.

Bestetik, **bizitasuna eta konpromisoa** aurrerantzean Ernai ezaugarritzeko ezinbesteko ideiak izango dira. Izan ere, hurrengo urteetan, kalean, borrokatzen, leku askotan parte-hartzen eta oro har, ahalik eta gazte gehienekin harremantzen egongo gara. Era berean, gazteoi asaldatzen gaituzten aferei askoz lotuago egongo gara une oro, horiek landu eta borrokatzeko konpromezua hartzen dugularik. Horregatik, aurrerantzean apustu berezia egingo dugu zentzu horretan gaitasunak irabazteko.

Era berean, Ernai zerbait baldin bada, hori errebeldiaren hitzak ezin hobeki azaltzen du. **Errebeldeak gara**, hain zuzen, inposatu diguten ordenaren aurrean planto egiten dugulako, beste herri zein mundu bat aldarrikatzen dugulako eta alternatiba horren alde egunez egun borrokatzen dugulako.

Horiek dira beraz, Ernai zer den azaltzeko zehaztutako ideia nagusiak. Zentratu bezain zabala, bizia, konprometitua, militante politikoz osatua, gazteen etxe eta eskola, eta errebeldea. Baina guztiaren gainera, herri honen askatasunaren alde borrokatu nahi duen edozein gazterentzat lanabes bat.

Ernairen
IV. Kongresua.

ERRORE
GUTU

GAZTAKI

5. Zein da gure ortzimuga?

Gure ortzimuga argia da: **Euskal Herria aske, sozialista, feminista eta euskalduna**. Horren alde borrokatzen dugu, hori da hain zuzen gure proiektu politikoa.

Independentistak gara, independentzia eskuratzea delako Euskal Herriak bizirik jarraitzeko modu bakarra. Independentistak gara, ez garelako ez espainol eta ez frantses, gu euskaldunak gara eta gure herrian askatasunez bizi nahi dugu. Independentistak gara, hori delako euskarak zein euskal kulturak bizirauteko modu bakarra. Eta independentistak gara, hori delako Euskal Herrian ordena kapitalista hausteko eta zapalkuntzarik gabeko jendartea eraikitzeko modua. Kapitalismo zisheteropatrialkalaren kateak gure herrian hartzen duen forma bereizitua Frantziar eta Espainar Estatuena da. Hortaz, hori gainditu eta sozialismoak zein feminismoak bide egin dezaten, Euskal Herriaren askapen nazionala erdiestea ezinbesteko premisa da.

Sozialistak gara, gutxi batzuen interesen gaineratik, herri sektoreen interesak zentroan jarriko dituen herria eraiki nahi dugulako. Aberastasunaren eta lanaren banaketa arautu eta kolektibo bat aldarrikatzen dugulako. Finean, eredu kapitalista gainditzea, klaserik gabeko eta komunismoaren baloreetan oinarritutako jendartea eraiki nahi dugulako.

Feministak gara, zapalkuntza patrialkalaren gainetik, jendarte feminista bat eraikitzeko bokazioa dugulako. Alegia, gorputz feminizatuen prekarizazio eta eskulanaren ustiaketaren bitartez, sostengatzen den kapitalismo zisheteropatrialkalarekin hautsi nahi dugu. Finean, emakume, trans eta bollerekiko biolentzia estrukturalik emango ez den eta bizitza zein beronen sostengua zentroan izango dituen gizartea eraiki nahi dugulako.

Era berean, gure proiektua interseksionala da. Izan ere, zapalkuntzak elkar gurutzatuta daudela eta askotariko dimentsioak dituztela ulertzen dugu. Beraz, horien gaindipena helburu duen edozein proiektuk zapalkuntzen arteko mailaketarik egin gabe askotariko zapalkuntzei erreparatu eta borrokatzeko gauza izan behar da.

Horregatik, zein egungo agertokian duten zentralitateagatik, gure proiektu politikoan **borroka ekologistak, transmaribolloak eta jatorri eta kultur aniztasunaren** lerroak leku nabarmena izateko hautua egin dugu.

Ernairen
IV. Kongresua.

**NOIA
BO
A
L
O
B
N**

**S
T
A
K
O
B
B**

6. Nola borrokatuko dugu?

Definitu dugu beraz, Ernai zer eta nolakoa den, baita Ernaik zeren alde borrokatzen duen ere. Hurrengo lerroetan, aldiz, helburu horiek erdiesteko gazte antolakundeak bizi dugun une historikoan eta askapen prozesuaren fase honetan hartu beharreko forma lurreratuko dugu.

Liburuxka honen hasieran, zentralitate berezia eman diogu ziklo politiko berri gisa izendatzen dugun ideiari, eta hain zuzen, ziklo politiko berriari ertsiki lotuta ulertzen dugu Ernairen bideorria. Izan ere, ziklo politiko berri batetaz ari garenean, Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokan aurrera egiteko aukera potentzialen gurutzaketaz ari gara. Alegia, aukera dugu plano eta modu ugaritan askapen prozesuan urrats berriak egiteko. Hori horrela, egoera horrek Ernairen ekinbidean zuzeneko itzulpena izan behar du, aukera potentzial horiek ahalik eta gehien zukutu ditzagun.

Hori horrela, **aurrerantzean gure egitekoa, aldaketa sozial eta politikoa gazte eremutik hauspotu eta gazteria horren baitan agente aktibo bilakatzea izango da. Eta horretarako, Ernai ahalik eta gazte gehienentzat borrokarako tresna izan behar da.**

Izan ere, Euskal Herrian hainbat eremutatik bultzatuz sakoneko aldaketa sozial eta politikoak eragiteko baldintzak daude, eta bertan gazteontzako aukerak ikusten ditugu. Aukerak gazteon nahi, behar eta kezkek aldaketa horren bidez aterabidea izan dezaten. Aukerak gure beharrei merezi duten

lekua eta zentralitatea emateko. Eta aukerak beste hainbat herritarrekin batera gure herriaren askatasunaren alde bultzatzen jarraitzeko. Horregatik, gure egiten dugu aldaketaren aldeko olatu hori hauspotu eta ahalik eta urrunen heldu dadin borrokatzeko konpromisoa. Baina gazteok ezin gara ikusle hutsak izan. Gazteok, parte aktibo izan behar gara eta horretarako ardura hartzen dugu.

Horrela beraz, aurrerantzean bizi dugun bidegurutze historikoan —zeinetan gure herriak ez duen bere etorkizuna bermatuta eta gazteok geroz eta zapalduagoak garen— herri hau martxan jarri eta aldaketaren olatua hauspotzeko konpromisoa hartzen dugu.

Hori horrela, erronka horri heltzeko eta aldaketaren aldeko olatua ahalik eta urrunen heltzeko **Ernai borroka tresna nagusi gisa kokatuko dugu.**

Izan ere, aurrera begira erronka kolosalak ditugu eta gure inguruan mehatxua nabarmenak dira. Mundua bidegurutze batean dago eta testuinguru horretan Euskal Herriak bere etorkizuna mehatxupean du. Hori horrela, aurrera urrats bat egin eta herri honetako gazteriari gure onena eskaintzeko prest gaude. Garaiak borroka eskatzen du, zabaltzea, indartzea eta egoerari aurre egitea. Horregatik beraz, Ernai zabaltzea eta ahalik eta gazte gehienentzako elkargunea izatearen aldeko hautua egiten dugu.

Beraz, hori litzateke aurrerantzean gure ekinbidea norabidetuko duen ideia nagusia: aurrerantzean aldaketa sozial eta politikoa gazte eremutik hauspotu eta gazteria horren baitan agente aktiboa izatea. Eta horretarako, Ernai ahalik eta gazte gehienentzako borrokarako tresna izango da.

7. Zeren bitartez borrokatuko dugu?

Gure lana zuzentzeko gako nagusiak zehaztuta, aurrerantzean norabide horretan sakontzera aldera indartu beharreko ardatzak zeintzuk diren zehaztu ditugu.

7.1 Erronka nagusiak.

Horretarako, alde batetik, hipotesi orokor hori lurreratzeko bost erronka zehaztu ditugu.

- Lehenik eta behin, **Ernai zentratu eta zabaltzearen erronka dugu.** Hain zuzen, aurrerantzean Ernai ahalik eta gazte gehienentzako elkargunea izatearen ideiatik tiraka, praktika politikoaren bitartez Ernai zabaltzea behar beharrezkoa dugu, hau da, askotariko eskaintzak egitearen bitartez askotariko gazteek bertan lekua topatzea.
- Bestetik, **gazte bulkada nazionala hauspotu eta indartzea.** Herri honek bizi duen une garrantzitsuaren kontzientzia hartuta, ezinbestekoa dugu gazte eremuan urrats bat aurrera egin eta herri honi astindu berri bat ematea. Independentziaren aldeko aldarria zentroan jarri eta horren alde borrokan gauden gazteak ahalik eta gehien izatea da erronka. Bada, hori gazte bulkada nazionala hauspotzearen ideia baino sintetizatu dugu.

- Bestalde, **gazte borrokarako ekosistema elikatzea kokatu dugu** erronka gisa. Euskal Herrian badaude Ernaiz gain bestelako espazio zein eragile askotarikoak sekulako ekarpena egiten dutenak, besteak beste, aldaketa sozial eta politikoa hauspotzen zein oro har, gazteria antolatzearen eta politizatzearen ikuspegitik. Horren baitan kokatu ditzakegun askotariko eragileek sortzen duten aktibaziorako giro eta baldintza multzoari deritzogu hain zuzen gazte borrokarako ekosistema. Horrela, Ernaik espazio eta eragile guzti horiekin batera bidea egin behar du. Lekuan leku beraz, gazte borrokarako ekosistema deritzogunak izan ditzakeen askotariko formak kontuan izan eta batera lan egingo dugu.
- Laugarrenik, **gazteriaren nahi, behar eta kezak politizatzea eta eztabaida politikoa erdigunean kokatzearen** ardura finkatu dugu. Askotarikoak dira gazteok asaldatzen gaituzten problematikak (etxebizitza, faxismoaren gorakada...). Aurrerantzean beraz, gure egiten dugu guzti horiei heldu eta horien gairak bidean horiek eztabaida publikoaren erdigunean kokatzearen erronka.
- Azkenik, **gazteon artean aldaketaren aldeko giro, ilusio eta espektatiba elikatzea** litzateke bosgarren erronka. Izan ere, ez dago borrokatzerik ilusiorik gabe. Ez dago konprometitzerik hori gauzatzeko aukerarik ikusi gabe. Finean, borroka ere bere erregaia behar du. Horregatik, aurrera begira gure egitekoa aldaketa hauspotzeko ilusioa piztu eta borrokarako grina ernaltzea izango da.

7.2 Ernairen dinamika.

Horiek izanik datozen lau urteetan gure jarduna norabidetuko duten bost erronka nagusiak, **Ernairen dinamika** horiek egikaritzeko tresna nagusi gisa izendatu dugu. Izan ere, aurrerantzean Ernai ahalik eta gazte gehien biltzeko espazio izatearen anbizioa baldin badugu, horretarako, nahi eta nahi ez gure eskaintza zabaldu eta indartu behar dugu.

Esan bezala, dinamika zehaztutako erronkak martxan jartzeko tresna izango da, eta horregatik, nagusiki bi alorrei erantzutera bideratzea zehaztu dugu.

- Alde batetik, **nazio auziaren lanketa**. Honen bidez, gure egitekoa Euskal Herrian ahalik eta gazte gehien independentziaren alde kokatzea da. Horretarako, nazio gatazkaren etengabeko lanketa ezinbestekoa da. Gatazka bera ikusarazi eta nazio atxikimendua handitzeko. Horrela beraz, hurrengo urteetan bertan jarriko dugu fokoa.
- Bestetik, **gazteon bestelako nahi, behar eta kezken lanketa** egingo dugu. Aipatu bezala, askotarikoak dira gazteok asaldatzen gaituzten problematikak, are gehiago, egungo garaiotan. Horregatik, gure gain hartzen dugu horiei erantzun eta borrokatzearen ardura. Gainera, horiek nahi eta nahi ez nazio auziarekin elkarloturan ulertzen ditugu. Izan ere, Euskal Herrian gazteok bizi ditugun askotariko arazoei aterabidea emateko modu bakarra askapen prozesua muturreraino eramatea da. Beraz, problematika horien eta nazio auziaren harremana irudikatu eta problematizatzearen egitekoa ere izango dugu.

7.3 Eremu estrategikoak.

Bestetik, zenbait **eremu estrategiko** definitu ditugu. Horietan, bai Ernainen dinamikaren bitartez zein bestelako eragile batzuekin elkarlanean borrokatuko dugu. Eremu horiek hurrengoak liriateke:

- **Euskara**. Euskararen aldeko borroka askapen prozesuaren zutabeetako bat da. Gure herriaren askatasunaren aldeko borroka eta gure hizkuntzaren aldeko borroka txanpon beraren bi aldeak dira. Horrela, euskararen alde borrokatzen dugun aldiro Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokan ari gara. Horregatik, aurrerantzean euskararen aldeko borrokari behar duen zentralitatea ematera goaz, gure kanpainen bitartez eraginez zein euskalgintza osatzen duten askotariko eragileekin elkarlanean.
- **Feminismoa**. Feminismoak munduan egoteko eta askapen prozesua irakurtzeko perspektiba integral bat eskaintzen digu. Feminismoa edonolako zapalkuntzaren gaindipena helburu dugunontzat ezinbesteko zutabeetako bat da. Gainera, milaka eta milaka gaztereen politizazio iturri nagusia da, herri hau eraldatzeko sekulako giharra duena. Horregatik, aurrerantzean borroka feministaren aldeko hautu irmoa egiten jarraituko dugu.

- **Jatorri eta kultur aniztasuna.** Geroz eta gehiago dira gure herrira beste lurralde batzuetatik datozen herritarrak eta aurrerantzean dinamika hori indartuko dela aurreikusi dezakegu. Honek, Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokan ari garen gazteoi aukera eta erronka berriak suposatzen dizkigu. Hurrengo urteetan, gakoa izango da komunitategintzan eta jatorri aniztetako herritarron arteko kohesioan indarrak jartzea. Horrela, guk ere konpromisoa hartzen dugu gazte mailan norabide horretan lan egiteko.
- **Hezkuntza.** Hezkuntzarena eremu garrantzitsua da, milaka gazte biltzen dira bertan eta hainbat gazterentzat lehenengo politizazio eremua da. Horrela, aurrerantzean hezkuntzak gure eguneroko lanean pisu nabarmena izatea proposatzen dugu. Horretarako, gehien bat Ikamari esleitzen diogun hezkuntzan eragitearen ardura.
- **Maila lokaleko askotariko espazioak.** Aurretik aipatu bezala, herri eta auzoetan gazte ekosistema deritzoguna osatzen duten askotariko eragileak daude. Aurrerantzean beraz, herri bakoitzean egon daitezkeen askotariko gazte antolakuntzarako espresioekin batera lan egingo dugu.

Horiek dira beraz, gure IV. Kongresua izan denaren ondorio nagusiak. Honakoa, urte bete honetan zehar eztabaidatutakoaren sintesi bat baino ez da eta ahalik eta modu zehatzenean prozesu honetan zehar zehaztutakoa transmititzen ahalegindu gara. Alabaina, ziur bat baino gehiago direla gehiago sakontzea nahiko zenituzkeen ideia horiek. Kasu horretan, gertuen duzun Ernaiko kide horrenagana jotzera gonbidatzen zaitugu.

Amaitzeko, txosten honi hasiera eman diogun bezala borobildu nahiko genuke. Borrokarako gonbitea luzatuz, hain zuzen. Garaiek egiten gaituzte, gu bizitzea egokitu zaigun garai horren ondorio gara eta hain zuzen garai hau zeozerk ezaugarritzen baldin badu, borrokatu beharrak ezaugarritzen du. Gure herriaren alde borrokatzearen beharrak, gure belaunaldiaren alde borrokatzearen beharrak.

Ekin diezaiogun beraz, gaur hobe bihar baino. Askok direlako aurrean ditugun erronkak, baina indarrak eta baldintzak soberan ditugu erronka horiek gainditu eta garaipena gure egiteko.

Borrokaraz beraz!

Gora Euskal Herria askatuta!

Gora Ernai!





I N D E P E N D E N T Z I A

S O Z I A L I S M O A

F E M I N I S M O A

Ernairen
IV. Kongresua.

**Ondorio
nagusiak.**

20260509